



# Hezur- muina ematea

Zure hurrengo  
**bizi-konpromisoari**  
buruzko informazio zehatza



adona

 Gobierno de Navarra  
Departamento de Salud  
Nafarroako Gobernua  
Osasun Departamentua



Hezur-muina ehun bat da, eta gure hezurren barruan dago, batez ere hezur lauen barruan. Odola osatzen duten zelulak (globulu gorriak, globulu zuriak eta plaketak) "fabrikatzen" ditu zelula oso berezi batzuen bidez (odoleko zelula ama esaten diegu arrunki).

Hezur-muina ematen edo transplantatzen denean, zelula horiek eman edo transplantatzen dira, zehazki.

Odolak bizi-funtzioak betetzen ditu gure organismoan, eta, beraz, hezur-muinaren funtzionamenduan eskasiaren bat izanez gero, odolarekin lotutako gaixotasunen bat (leuzemia, minbizia...) duten pertsonen bizia arriskuan jartzen da.

Beste terapia mediko batzuek funtzionatzen ez dutenean, hezur-muina transplantea da gaixo horientzako irtenbide bakarra; autotransplante bat izan daiteke (gaixoaren beraren hezur-muina ateratzen da) edo emaile baten transplantea izan daiteke, ahaide izan ala ez.

Hezur-muinaren transplanteen arazoetako bat emailearen eta hartzailearen arteko bateragarritasuna da; izan ere, odol-taldeaz eta Rh-az gain (odol-transfusiorako beharrezkoa), kontuan hartu behar da HLA (Giza Antigeno Leukozitarioak) sistemaren bateragarritasuna, hau da, gure organismoaren sistema immunologikoaren bateragarritasuna.

Zinez zaila da emaile eta paziente bateragarriak aurkitzea; izan ere, anai-arreba biki berdina bakarrik dira %100 bateragarriak, anai-arreben arteko bateragarritasuna % 25ekoa da, eta ahaide ez diren pertsonen artekoa 1 da 3.500 artean (gutxi gorabehera).

Horregatik, emaile bateragarriak aurkitzeko modu bakarra nazioarteko erregistro bat sortzea da; han, emaile izan daitezkeen ezaugarriak biltzen dira, HLA sistemaren barruan. Espainian, Josep Carreras Fundazioa da erregistro horren arduraduna (REDMO), eta, Nafarroan, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak du probak egiteko eta datuak bidaltzeko ardura.

Hezur-muinaren emaile egiteko, **nahikoa da 18 urte baino gehiago eta 40 baino gutxiago izatea**, osasun normala izatea, odolaren bidez transmititzen den gaixotasunik eduki ez izana eta odol-lagin bat ateratzea, emaile izan daitezkeenaren HLA (Giza Antigeno Leukozitarioak) sistemaren analisi kliniko bat egiteko. Datuak nazioarteko erregistro horre-



tan biltzen dira, bateragarria den gaixoren bat agertu arte.

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuan (Nafarroako Ospitalearen sarreran dago) ateratzen da lagina, edo Tuteran odola ateratzeko dagoen tokian (Eza kalea, 2), edota Nafarroako hainbat herritan zehar ibiltzen den unitate mugikorrean. Ez da beharrezkoa baraurik egotea analisi hori egiteko.

Emaille batekin bateragarria den gaixo bat aurkituz gero, emaillea aurkitu, analisiak berriz egiaztatu, eta eguna eta ordua zehazten dira hezur-muina ateratzeko, emaillearen bizilekuan.

Hiru prozedura daude odoleko zelula ama horiek lortzeko. Horietako bat zilbor-hestea ematea litzateke; izan ere, ama eta semea lotzen dituen zilbor-hestean erditzeko unean geratzen den odol-kantitate txiki hori oso aberatsa da zelula horietan.

Bigarren metodoa, kasuen % 10ean gutxi gorabehera, hezur-muinaren ehuna gure hezurren barrutik ateratzea da, zehazki aldakako gandor iliakoetatik; anestesia orokorra edo epidurala behar da, eta, beraz, emailleak 24 ordu eman behar ditu ospitalean ingresatuta.

Hezur-muina atera ondoren, biharamunean itzuliko da emaillea etxera; litekeena da hainbat egunez min pixka bat sentitzea hezur-muina atera dioten tokian, baina nahikoa da analgesiko arruntak hartzea mina arintzeko.

Zorionez, **askoz sinpleagoa da gaur egun hezur-muina ematea kasu gehienetan**, hezur-raren barrutik zuzenean ateratzen ziren zelula amak (zelula hematopoietikoak edo Stem zelulak) odol-fluxuan ere daudelako, kantitate txikiagoan bada ere.

Odol-fluxuan zelula ama gehiago egoteko, medikamentu batekin estimulatzen da hezur-muina; horrela, zelulak ugaritu, eta gehiago aurkitu ahalko dira odol-fluxuan. Gero, aferesi-sistema baten bidez ateratzen dira, hau da, Odol Bankuan plaketak edo plasma lortzeko egunero erabiltzen den sistema beraren bidez. Hau da, emaillearen zaina ziztatzen da, eta odola makina batera igarotzen da (zelula-bereizgailua), zeinak, prozesu mekaniko baten bidez, nahi diren zelulak (odoleko zelula amak) hautatu eta gainerako odol-osagaiak emai-



leari itzultzen baitizkio. Prozesuak 4 ordu inguru irauten du, baina, kasu honetan, amaitu eta berehala itzul daiteke emailea etxera.

Gaur egun, edozein metodo erabil daiteke, gaixoaren beharren arabera, baina ohikoena da odol periferikoko zelula amak aferesi-prozesu baten bidez ateratzea (gaixoa artatzen duen medikuak eta hezur-muina ateratzeaz arduratzen den taldeak erabakiko dute zein den aukerarik onena emailearentzat eta pazientearentzat).

Emailea bizi den tokian ateratzen da hezur-muina beti, eta transplantatzeko taldeko erantzulea da gaixoa dagoen lekura eramateaz arduratzen dena, ahalik eta azkarren transplantatzeko.

Odol-emailea bazara, hurrengo odol-ematea aprobetxatu dezakezu hezur-muinaren emaile egiteko. Erizainari esan besterik ez duzu egin behar; orduan, beste odol-hodi bat aterako dizu analizatzeko, eta baimen informatuaren orria emango dizu.

Eskerrik asko erakutsitako interesagatik. Honezkero, urratsa egitera animatzen zaitut, pertsona askoren osasuna Nazioarteko Erregistroan emaile-kopurua handitzearen mende baitago. Hezur-muina ematea, odola, organoak, zilbor-hestea eta abar ematea bezala, ALTRUISTA, BOLUNTARIOA ETA ANONIMOA da.

hezur-muina ematea  
**BIZI-**  
**KONPROMISOA**



## **Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren ordutegiak Iruñean**

Astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 20:00etara, eta ostiralak, 08:00etatik 14:30era.

## **Odola ateratzeko orduak Tuterako toki finkoan (Eza kalea). Tel.: 848 421 991**

Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 13:45era

Astearteak eta ostegunak, arratsaldez ere: 17:00etatik 20:00etara

Ez da beharrezkoa baraurik joatea.

**Iruñearen edo Tuteraren eragin-eremutik kanpo bizi bazara, kontsultatu unitate mugikorraren egutegia [www.adona-es](http://www.adona-es) webgunean.**

ORAINDIK ODOL-EMAILEA EZ BAZARA, une egokia izan daiteke hau.